



AURREZTEN IKASTEKO PROGRAMA ABIAN

Ekintza Plan Globala izeneko ekimena jarri du abian Tolosako Udalak; nahi duten familiek har dezakete parte, doan 3

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-07-05**

VIURTEA 1.478.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



800 lagun inguruk zeharkatu zituzten Tolosako kaleak, AHT, Abiadura Handiko Negozioa lelopean. E. EZEIZA

TREN SOZIALAREN ALDE ETA AHT-REN AURKA EGIN DU ELA-K

TOLOSA Ekitaldia burutu zuten atzo ELA sindikatuko ordezkariak Leidorren; ondoren, manifestazioan 800 lagun inguru bildu ziren 2

Moto eta motozaleen topagune

IBARRA VI. Langostino Moto Festa izango da gaur eta bihar, ekitaldi berezi ugariarekin 5



Altzon atzo egin zuten entziero txikia. HITZA

San Fermin jaiak ospakizun, eskualdean ere 2/5

Surf Music

Euskaltel, surfa eta rock&roll-a.

Zator Euskaltelera, eta eskuratu Mp3a, Bluetooth-a eta irratia dituen mugikor bat

0€ -tik hasita.

Euskaltelekin, dena erazagoa da.



Deitu 1717 telefono zenbakira, ohar Euskaltelera sartu behar duzu. Euskaltelera sartu behar duzu. Euskaltelera sartu behar duzu.

© 2008 Euskaltel. Euskaltel, surfa eta rock&roll-a. Euskaltel, surfa eta rock&roll-a. Euskaltel, surfa eta rock&roll-a.



ELA sindikatuak, atzo, Leidorren egin zuen ekitaldiaren une bat. EZEIZA

AHTren obrak gelditzea exijitu du ELA sindikatuak

Azpiegiturak » Trenbide konbentzionala sustatzea proposatzen dute eta AHTren inguruko gizarte eztabaida bultzatzea.

ERREDAKZIOA

AHTren aurka, eta tren sozialaren alde egin zuen atzo ekitaldia Tolosan ELA sindikatuak. Leidor aretoan 800 lagun inguru bildu ziren eta Jose Elorrieta eta Mikel Noval, Egoitz Iturbe eta Janire Domingezek hitz egin zuten sindikatuaren ordezkari bezala. Garraioaren egoera Euskal Herrian ez dela ona, eta egoera horri ez diola AHTk irtenbidea emango adierazi zuten.

Egun, errepideak automobilerik eta kamioiez beteak daude, herriarrek ez dute garraio publiko eraginkorrik, errepidez garraiatzen diren merkantzetako asko arriskutsuak dira, auto-ilarak ohikoak dira, garraioaren eraginez negutegi efektuko gero eta gas gehiago

igortzen dira atmosferara...», azaldu zuten, eta «hori guztia Abiadura Handiko Trenak ez du konponduko»; izan ere, «hiriburuek beste-rik ez ditu lotuko, gainerako herriak eta eskualdeak bakarrik utziz, beraz, eguneroko joan-etorrien %99rako ez da baliagarria izango». Bestalde, AHTk ez duela balioko gaur egun errepidez eramaten diren merkantzien garraiorako esan zuten, eta horretaz gain, «atzeraezinezko inpaktua ekarriko dio ingurumenari, eta kostu ekonomiko itzelak nabarmenki mugatuko du etorkizun hurbileko gizarte-gastua».

Bestalde, AHT «gobernu zentralaren proiektua» dela adierazi zuten, eta Eusko Jaurlaritzak berea bailitzen onartu duela, «herri honen benetako premiak ahaztuta».

Trenbideak aprobetxatzea

AHT ez eraikitzea aspalditik ari da aldarrikatzen ELA sindikatuak, eta «bere ordez, trenbide konbentzio-

nala sustatzea, bide berriak eraikiko dituen sare hobetua izango litzake, zerbitzuaren proportzioko kostu ekonomiko eta energetikoarekin, betiere». ELAk argi utzi nahi izan zuen, AHTren kontrako ekintza bortitzak gaitzetsi egiten dituela, «proiektu horren alde daudenei argudioak emateko baino ez duela balio». Hala, «AHTa arbuia ez eziz, ELAk ordezko hautabideak proposatu eta mobilizazioak eta sentikortzeko eta informatzeko kanpainak ere egin ditu, eta Eusko Jaurlaritzari gizartearen parte-hartzea eta galdeketa egitea eskatu dizkiogu, baina ukatu egin zaizkigu behin eta berriz», esan zuten.

AHTren obrak gelditzea exijitu zuten, «Euskal Herrian behar dugun trenbide-sareari buruzko gizarte-etzabaidaren beharra aldarrikatuz, oraindik garaiz baikauda, obrak dagoeneko hasiak badaude ere, gelditzea posible baita».

Ekitaldiaren ostean, manifestazioa egin zuten Tolosako kaleetan zehar.



Pasa den urtean eginiko entzierroa, Plaza Berrian. A. IMAZ

San Fermin Txiki Eguna ospatuko dute astelehenean

Gizartea » Plaza Berrian hasiko da festa eguerdian txupinazoa bota ostean; entzierroa, txokolata eta 'pobre de mi'-a izango dira.

ERREDAKZIOA

Alde Zaharreko bizilagunek antolatu eta Udalak lagunduta, aurten ere San Fermin Egunez festa izango da Alde Zaharrean. Astelehenean izango da, eta San Fermin jailetako osagai garrantzitsuenak mantenduko dituzte, hau da, entzierroa, *Pobre de mi* kantatzea, eta noski kolore zuri eta gorriak.

Ekintza guztiak Plaza Berrian izango dira; eguerdian txupinazoa botako dute, eta gaztetxoenei goxokiak eta globoak banatuko dizkiete. Arratsalde partean entzierro txikia egingo dute txikiak, Moyua ganadutegiko gezurrezko zezenekin, eta ondoren txokolata hartzeko aukera izango dute. Eta azkenik, festari behar bezala amaiera emateko, *pobre de mi* abestia.

Egun borobila izango da, beraz, astelehenekoa, batez ere, txikienentzat, eurei zuzendutako ekitaldiak nagusituko baitira.

» EGITARAUA

Uztailak 7, etzi

■ **12:00.** Suziriak, globoak eta karameloak. Musika izango da giroa alaitzeko, eta Buruhandiak ere egongo dira.

■ **17:30.** Entzierro txikia Moyua ganadutegiko zezen txikiak. Hauxe da egingo duten bidea: Erremontari kalea, Korreo kalea eta Plaza Berria.

■ **Ondoren.** Txokolata izango da denentzat.

■ **20:00.** *Pobre de mi* abestuko dute festari amaiera emateko.

Tradizio handia gurean ere

Aurten laugarren urtez jarraian ospatuko dituzte San Fermin Txiki jaiak Alde Zaharrean. Baina festa hauek ez dira ez berriak Tolosan, 50. hamarkadan ere ospatzen baitzituzten. Erremontari kaleko 38. zenbakian zegoen El Tuerto tabernako jabea Jose Villanueva arzetxonarra zen. Lehen tabernetan entzietzat, eurei zuzendutako ekitaldiak nagusituko baitira.

U Urteurrenak

II. urteurrena

**MIEL MARI ARROSPIDE
ARMENDARIZ**

Maite zaitugu

Zure familiak

ALEGIAN
2008ko
uztailaren 5ean



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



Hasi garagardo pitxarrak betetzen!

IRURA ● Atzo ireki zituen atek Iru-rako garagardo azokak. Lehenda-biziko tragoa antolatzaileek hartu zuten. Hamar garagardo ezberdin dastatzeko aukera izango da igandera arte herriko frontoian. Aurtengoan ere ikastolaren alde egingo dute ekitaldia eta are bereziago izango da, herri gutzia Kilometroen urtean murgildua baitago. Hala, ikastolaren eraikin berria rdaintzeko dirua ateratzea da helburu nagusia. Aipatzekoa da 50 lagun inguruko ariko direla lanean egun hauetan. ASIERIMAZ

Eguneroko ohiturak aldatuz, aurrezten ikasteko aukera eskaintzen du Udalak

Tolosa » Ekintza Plan Globala izeneko programa jarri dute abian, eta nahi duten familiek har dezakete parte, doan.

ESTI EZEIZA

«Ez dira ahalegin handiak behar, ekintza txikiak baizik», esaldi horrekin, ingurumena zaindu eta etxean dirua aurreztera gonbidatzen ditu Udalak Tolosako herritarrik. Horretarako, GAP (Ekintza Plan Globala) ekimena jarri dute abian. Hau Nazioarteko plan bat da, eta Nazio Batuen Ingurumen Programaren babesa du eta Unesco-ren bermea.

Plan honen helburua da pertsonen bizi baldintzak hobetzea, ingurumenean duten eragina apalduz. Honetarako, etxean bertan egin daitezkeen hainbat ekintza sustatzeko sistema erabiltzen dute. Ekimen honek hainbat jokarera aldatzen laguntzen du zenbait arlotan. Sortzen dugun hondakina, uraren eta energiaren kontsumoa, eta garraioaren erabilera dira jorratzen diren atalak. Honenbestez, Tolosako 6.804 familiei gonbidatuko zaie programa honetan parte hartzea. Dagoeneko banatu dituzte etxeetan, programaren inguruko informazioa biltzen duten eskaera orriak.

Plan hau jarraituz gero, lehen gaien kontsumoa eta kutsadura gutxitzea lor daiteke. Baita bizi kalitatea hobetzea ere, «gure kontsumoa benetako beharretara modu eraginkorragoan egokituz». Azkenik, plan hau aurrera eramaten duten familiek etxeko gastuak murriztuko dituzte.

Programa honen bitartez, ingurumena hobetzeko aholku praktikoak biltzen dituzten lau eskuliburu jasoko dituzte eskatzaileek. Hi-



Aurkezpen ekitaldian: Iurre Peñagarikano Ingurumen zinegotzia eta Asier Ortun, programaren teknikaria. ESTI EZEIZA

lean bat. Eskuliburuekin batera lau galdera-sorta banatuko dira, egingarriak aurrerapenak ebaluatzeko. Gainera, programa burutzendutenek Etxe ekologikoaren ziurtagiria jasoko dute.

Jarraitu beharreko pausoak

Udalak aste honetan zehar bidali ditu GAPen inguruko esku-orriak. Hauetan, programaren inguruko informazioa jartzeaz gain, eskaera orria ere badago. Plana gauzatu nahi dutenek, orria postaz bidali dezakete. Ondoren, irailaren erdi aldera, hasteko, garraioaren inguruko galdeketa bat, eta aholkuz betetako liburuxka bat jasoko dute etxean. Herritarrek, lehendabizi, liburuxka irakurri aurretik, beraien eguneroko ohiturak zeintzuk diren adieraziz, galdeketa orria bete behar dute. Ondoren, hau bidali beharko dute postaz, eta hiru asteren buruan, beste galde-

keta orri bat jasoko dute, ea epe horretan ohiturak aldatu dituzten edo ez baieztatzeko. Prozedura bera jarraituko da hurrengo hiru gai edo arloekin ere. Hau da, energiarenarekin, urarenarekin eta erosketan nahiz etxeko hondakinekin.

Programa hau bera internet bidetzere jarrai daiteke. Gainera, Udalekoek sistema hau gomendatzen dute, «papera eta energia aurrezten baita». Honetarako, interesatuek www.udalsarea21.net webgunera jo behar dute.

Gainera, modubatera nahiz bestera, programa jarraitzen dutenek, zenbait sari irabazteko aukera izango dute.

Garapen iraunkorraren programa

Garapen iraunkorraren 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategia EAEko biztanleek planetaren

oraina eta geroa bermatzeko hartu beharreko ingurumen-konpromisoak sustatzen ditu GAP programak berriz, oso ohikoak diren zerregin batzuetan jendearen eguneroko jokabideak hobetzen

Iragarki laburrak

LANA

■ **Okina.** Tolosaldeko okindegi batek, pertsona bat behar du arratsaldeko lana egiteko. Bidali argazkidun CVa 142 posta kutxatilara, 20400 Tolosa. Erreferentea: zerbitzaria.

■ **Begiralea.** Begirale tituludun pertsona behar dugu uztailearen 10etik 20ra, udaleku txikiak. Interesatuek deitu 628 94 72 53 telefonora.

■ **Zaintzailea.** Neska euskalduna

» PAUSOAK

■ **Garraioa.** Bidaliko den eskuliburu gai honen inguruko izango da. Irailaren 15a inguruko banatuko da, eta urriaren 5a baino lehen bete.

■ **Ura.** Urriaren 6a aldera banatuko da gai honen inguruko liburuxka eta galdeketa orria. Urriaren 26a baino lehen erantzun beharra dago.

■ **Energia.** Urriaren 27an bidaliko da gai honen inguruko galdeketa orria, eta azaroaren 16a baino lehen erantzun beharra dago.

■ **Erosketa eta hondakinak.** Gai hauen inguruko izango da azken liburuxka eta galdeketa. Azaroaren 17an banatuko da hau. Erantzunak berriz, abenduaren 8a baino lehen jasoko dira.

laguntzen du. Orain artekoetan 55 udalerritako 17.000 familia baino gehiagok parte hartu dute programan, eta hau lortu da: etxean 300 tona hondakin gutxiago sortzea, 50 milioi litro ur gutxiago kontsumitzea eta 4.000 tona CO2 gutxiago aieratzea.

Aurten Euskal Autonomia Erkidegoan 144.000 familik programa jarraitzea aurreikusten da. Tolosan, orotara, 6.500 familia bizi dira, eta hauetatik 340k jarraitzea espero dute. «Nahiz eta zifra horiek gaitzitzen» saiatuko diren, Udalak azaldukoaren arabera.

behar da haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ez da udarako bakarrik. 685 72 20 47 edo 635 71 24 41era deitu interesatuek.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea, obra egin behar da. Interesatuek deitu 657 23 0011era edo 634 91 94 82 telefono zenbakietara.

Mari Karmen Ezeizaren erakusketa ikusgai Alegiako jubilatuenan

ERREDAKZIOA

Alegiako Jubilatuen tabernan erakusketa berria dago ikusgai. Hain zuzen ere, Mari Karmen Ezeiza artistaren lanak izango dira horretan eskegita.

Bere lanak lore eta hosto lehorrez osatutako collage-ak dira, guztirak 30 lan inguru bildu ditu erakusketa honetarako.

Alegiako ubilatuen tabernaasteartetik igandera bitarte irekitzen ditu atek eta azken erakusketa hau abuztuaren 7ra arte mantenduko dute. Aukera bikaina, beraz, arteaz gozatzeko.

Beroak paso eman dio gaur Amarotz auzoko festen egun handiari



Karaokean aritu ziren txikiak; ederki ezagutzen zituzten abestien letrak. N. LATABURU

» GAUR

- **08:00.** Garbiketa orokorra Txukun Txarra Zaharra taldearen eskutik.
- **10:00.** Diana Amarozko Konpon Ezinak taldearekin.
- **10:30.** Fatxada eta balkoi loratuen lehiaketa.
- **10:30.** Puzgarriak eta jolasak. Aurretik eta ondoren, buruhandiak.
- **12:00.** Bakailao ajoarriero lehiaketa.
- **12:30.** Haurren dantza ikuskizuna
- **14:30.** Ajoarriero lehiaketako sari banaketa eta bazkaria.
- **16:30.** Puzgarriak eta jolasak.
- **16:30.** VI. Mus Azkarra txapelketa Ekaitz tabernan.
- **19:30.** Batukada. Danborrada ondoren ere jarraituko dute.
- **20:00.** Amarozko danborrada.
- **23:00.** Rock kontzertua.
- **00:00.** Disko festa, Zelaia anaiekin.

Gizartea » Auzoko jaiak atzo hasi ziren txupinazoarekin eta bihar arte musika, janari-edaria eta dantza izango dira.

ERREDAKZIOA

Gaur izango dute Amarotz auzoan jaien egun nagusia; baina atzokoan ere ez ziren atzean geratu eta bero sargoriari aurre eginez ekitaldi ugari izan zituzten, batik bat, etxeko txikienei zuzenduta.

16:00etan txupinazoarekin batera egin zuen ezta dantza jaiak. Haurtxen txanda lehenik jolasekin eta jubilatuen ondoren, txokolatadarekin, guztiek izan zuten zer gozatu.

Musikak hartu zuen ondoren lekukoa eta Musika Bandak, Kantu jirak eta DJ Bullek doinu jarri zioten jaiari.

Bakailao lehiaketa

Biharamuna izango dute ziurrenik amarozko auzotarrek gaur. Aurre egiteko sabela ondo betezea omen da eta aukera egokia izango dute bakailao lehiaketan. Antolatzaileek, «ekitaldi berezietariko» bezala definitu dute.

Berrerabilgarriak diren telazko poltsen banaketa

ERREDAKZIOA

Ernioaldea Udaltalde 21 osatzen duten udalerritan (Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Villabona eta Zizurkil) telazko poltsa berrerabilgarrien banaketari ekingo diete datoen egunotan etxe guztietara, Zizurkil izan ezik, non dende-

tan eta udal bulegoetan jarri diren eskuragarri telazko poltsak.

Ekimen honen helburua udalerritan poltsen berrerabilpena sustatzea da, erabilera bakarreko plastikozko poltsen neurritz gaineko erabilerekin ekiditeko.

Ingurumenean eragin handia

Ernioaldea Udaltalde 21etik plastikozko poltsen erabilerekin eraginaraziko dute. «Plastikozko poltsek ingurumenean duten eragina izugarria da. Poltsen fabrikazioarako behar den energia kantitatea handia izateaz gain, petroliorekin deribatuekin eginak daude, degradatzeko 50 urte baino gehiago behar dezaketenak. Fabrikazioan negutegi efektuko gasen isurketa ere handia da».

Horrexegatik, telazko poltsa hauen erabilera hedatzea «ezinbestekotzat» jo dute Ernioaldea Udaltalde 21etik.

TESTULIBURUAK

adituen eskutian
ez dago
ikusgai zailik

Ez duzue ezagutzen zuzeneko testuliburuak?

www.ekar.com

ARRASATE • ARDONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • HERNANI • IRUN • TRUÑEA • TOLOSA



TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK

BIGARREN HEZKUNTZARAKO IRAKASLEAK BEHAR DITU

- **Zientzietan lizentziaduna** (matematika, fisika, ingeniari, teknologia, mekanika, matematika, eta informatika emateko (ZBH))
- **Filogian lizentziaduna** (ingelese, euskara, gaztelania) (ingelese, euskara eta gaztelania emateko (LBH))
- **Filosofian lizentziaduna** (filosofia, gizartea eta informatika emateko (FBH))

- Derrigorrezkoak: CAP eta EGA titulua edo ballokidua
- Inglesaren ezagutza eta IKTetan trebezia baloratuko da

Curriculumak e-mailer bidali behar dira tolosa@laskolain.net helbidera. Azken eguna, uztailaren 8a.



Ibarrako plaza moeta guztietako motoz beteko da Langostino Moto Festaren 6. edizioan. HITZA

Gaur eta bihar motoez gozatzeko aukera bikaina

Ibarra » VI. Langostino Moto Festa urteroko legez ekitaldi ugariarekin antolatu dute Langostino Moto Elkarteak kideek.

ASIER IMAZ

Langostino Moto Kultur Elkarteak VI. Langostino Moto Festa antolatu du. Gaur eta bihar Ibarra moto eta motozaleen topagunea bilakatuko da. Horretaz gain, makina eta gizakiaren museoa ere izango da. Ezohiko mota berriak ikusteko aukera. Barnetik edo kanpotik ezagutu beharreko esperientzia.

300 motozaletik gora

Ibarrako plaza eta ikastola motozalez beteko da gaur. Langostino Moto Elkarteak kideen esanetan 300 lagun espero dituzte, nahiz eta 500 inguru hurbilduko duten esperantza izan; «motozale gehienak inguruko herrietatik hurbil-

duko dira baina baita ere Euskal Herri kanpotik ere. Lagun ugari ditugu leku askotan eta hauek ere etorriko direlakoan gaude».

Jaiaren erdigunea San Bartolome plaza izango bada ere, kontzertu, jolas eta abarrek, motozaleek Uzturpe ikastola izango dute atsedeen hartzeko lekua. Bertan akanpada zaindua egongo da, ongietorri garagardoa, kamisetak, pinak,

opariak, graffitiak eta Show Bike. Dena prest 14:00etan festari hasiera emateko, beraz.

«Aparkatzea debekatua»

Udalak Festarekin loturiko ohar bat plazaratu du. *Motoarekin akrobaziak* jarduera dela eta: gaur 14:00etatik 20:30era Euskal Herria kaleko 1 eta 17 tartean aparkatzea debekatua egongo da.

» EGITARAUA

Uztailak 5, gaur

- 14:00. Festa hasiera.
- 15:00etatik 20:00etara. Show Bike.
- 17:30. Motorrekina jokuak.
- 19:30. Stuntman-Moto akrobaziak: Team Levetarque frantziarrekina.
- 21:00. Afaria.
- 23:00. Rock jaialdia: Overload & Los Del Gas.
- 02:00. Strepsease Mixtoa. Show totala.

■ 03:00. DJ-aren emanaldia herriko plazan.

Uztailak 6, bihar

- 09:00etatik 10:00etara. Gosaria.
- 10:30. Motorrekina bira. Bidean hamaiketakoa.
- 13:00. Ibarrara itzulera.
- 13:00etatik 13:30era. Team Levetarque-Show Stunt frantziarrekina.
- 14:00. Bazkaria eta festa amaiera.



Sanferminak Altzon eta Ibarra

IBARRA » 11:45ean suzuria jaurtiki zuten udaletxe bakoitik. Beheran haurrak zain zeuden eskuak belarrietan jarrita. Eztandarekin batera zezen beltz-beltzak irten ziren eta batzuk korrika hasi ziren bitartean besteek eskuetan egunkaria zutela aurre egin zieten. Sanferminak Ibarra. Altzon ere ludotekako haurrak zapi gorri jantzirik jai egin zuten atzokoan. Arropa zuriak zezen beltzaren kolorearekin nahastu eta jolastu zuten. Aipatu behar da ludoteka ekainaren 25ean hasi zela eta uztailaren 24ra arteko iraupena izango duela Altzon. ASIER IMAZ

Euskaltel: argazkiak erruz.

Zator Euskaltelera, eta eskuratu 3,3 Mpx eta autofokatzeko aukera dituen kameradun mugikor bat

0€
-ek hasita.

Euskaltelekin, dena emazagoa da.

Deitu 1717 telefono-libreakin, zuzer Euskaltelren salbitokien bidez, edo sartu www.zuzer.com/telefonikoa gunean.



120 lagun inguru bildu ziren Lizartzako bazkari omenaldian. HITZA

Arantxa Sukia medikua omendu dute Lizartzan

Gizartea » Azken 19 urtetan Lizartzan, Orexan eta Gaztelun aritu da lanean Arantxa Sukia medikua.

A. IMAZ

Lizartzan pasa den igandean 120 lagun inguru bildu ziren Arantxa Sukia, Lizartzan, Gaztelun eta Orexan 19 urtetan mediku lanetan egon den emakumeari eskerrak emateko. Eskualdeko hiru herri hauek utziko dituen arren, bere lana Lazkaon egiten jarraituko du Arantxa Sukiak, «bere etxetik gertuago duen kontsultan».

«Herriko bat gehiago»

Omenaldi bazkarian Orexako herriarrak, Gaztelukoak eta gehien bat Lizartzakoak elkartu ziren. «Lizartzako udal alternatiboak» antolatua izan zen ekimena, nahiz

eta «Orexako eta Gazteluko udalek ere parte hartu zuten».

Antolatzaileen esanetan, «omenaldi bazkari on bat» egitea izan zen euren helburua, «eskerrak emateko. Izan ere Arantxa herriko bat gehiago izan da eta momentu txarretan eta onenetan bertan egon da. Gure aiton-amonak ezagutu ditu eta gu geu ere hazten ikusi gaitu».

Bazkariaren ondoren Lizartzako dantzariak aureskua eskaini zioten eta baita lore sorta ere. Udalek euren aldetik opariak eman zizkioten. «Berak hitz batzuk egin zituen eskerrak emateko eta bertakoa sentitzen dela azaldu zuen; Lizartzan familia bat duela esan zuen eta ez gaituela inoiz ahaztuko». Amaieran txarangaren doinuekin animazioak aurrera jarraitu zuten. «Unkituta eta gustura zogoen eta medikua izan arren amaieran puruak jendeari banatzen ibili zen».



Amaia Baztarriaren eta Naiara Archeliren marrazkiek irabazi dute San Bartolome Jaian bozeto lehiaketa. HITZA

Naiara Archeli eta Amaia Baztarrika bozeto lehiaketaren irabazleak

Ibarra » Festa Batzordeak San Bartolome jaian bozeto lehiaketako irabazleen marrazkiak aurkeztu ditu.

ASIER IMAZ

Haurren eta gaztetxoaren San Bartolome Jaietako bozeto lehiaketako irabazleak Naiara Archeli eta Amaia Baztarrika izan dira.

99 partaide

Festa Batzordeak San Bartolome Jaietako bozeto lehiaketaren bi irabazleak zoriondu nahi izan ditu, saridunak aukeratzeko zailtasunak izan dituztela onartuz; «aurkeztu diren bozetoek maila altua erakutsi dute eta epai-mahaiak irabazle suertatu diren bi bozetoak aukeratzeko zailtasunak izan ditu. Oinarrietan ezarritakoa betetzen zen ikusi ondoren, honakoak baloratu dira: konposizioa, teknika,

saiakera eta festa eta honen inguruko sinboloak adieraztea».

Guztira 99 lehiakide egon direla aipatu dute Festa Batzordeko kideek. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailara bitarteko parte-hartzea izan da. Hauei ere eskerrak eman nahi izan dizkie, «guztietan marrazketarekin aurrera jarrai dezatela eta datorren urtean berriro parte hartu dezatela animatu nahi da».

Laburrak

Festa Batzordearen batzarra uztailearen 9an

IBARRA » Ibarako Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaian antolaketarako Festa Batzordearen bilkurara deitu du uztailearen 9an, 20:00etan Udal Bilakura Aretoan.

Pello Odriozolaren egoera salatzeako ekitaldiak

TOLOSA » Pello Odriozolaren egoera salatzeako gaur Lugoko (Galizia) Bonxeko espetxean ekitaldia egingo dute Tolosatik joandako herri-tarrek. Bihar egin behar zen manifestazioa atzeratu egin dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Altuna Peñako kideak Altunarekin

IBARRA » Altuna Peñako kideek bazkaria egin zuten Xepla Elkartean ekainaren 21ean. Jon Altuna futbol jokalaririk ibararra bertan izan zen. Bazkariaren ostean lagunak emandako opariak jaso zituen Eibar taldeko jokalaririk.

honetan ere alboan izango ditu Altunak. A. IMAZ



Gaur Lesakan Euskadiko Sokatira Txapelketako 600 kiloko bigarren jardunaldia jokatu du Aresok. J. ASTIBIA

Aresok gaur 600 kilokoan bigarren saioa jokatu du

Sokatira » Joan den asteburuan hirugarren postua eskuratu zuen Aresoko taldeak eta postu horri eusten saiatuko dira.

ERREDAKZIOA

Bihar jokatu du lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketaren 600 kiloko bigarren jardunaldia, Lesakan eta Aresoko taldeak bertan izanen da.

Larunbatetan jokaturiko jardunaldiak arratsaldeko seietan jokatuko izan dira orain arte, baina gaurko saioa 17:00etan hasiko da, horrela eskatu baitzuten Lesakako antolatzaileek, Lesakan San Fermin jaiak baitira.

600 kiloko lehen jardunaldia joan zen igandean jokatu zen Arratzun (Bizkaia), eta Goiherri A-k (Erandio, Bizkaia) eta Gaztedik

(Laukiz, Bizkaia) berdindu egin zuten. Baina, agian, ez da oso erreferentzi zuzena, tiraldiak jokatu zireneko gunean desberdintasuna baitzegoen alde batean tiratu edo bestean. Edonola ere, Goiherri A eta Gaztedi agertu dira aurtengo txapelketan indartsuenak.

Bestalde, orain arte 680 eta 640 kiloetako txapelketak jokatu dira, eta Goiherri A-k jantzi du txapela bietan. Oraingo, 600 kiloko txapelketan sailkapen orokorra jardunaldi bat jokatu ondoren honela doa: Goiherri A-k (Erandio, Bizkaia) 4,5 puntu ditu, Gaztedik (Laukiz, Bizkaia) 4,5 puntu, Aresok 3 puntu, Goiherri B-k (Erandio, Bizkaia), 2 puntu eta Getxok (Bizkaia) puntu 1. Areso, beraz, hirugarren postuan doa.

Xabier Arraras sokatiralariak azaldu duenez, «kategoria honetan Mutriku taldeak ez du parte hartu eta hori nabaritu egin da».

Zelaiari dagokionez, joan den aste-buruko ez zela oso laua adierazi du. «Kasu hauetan aldapa gora dagoen taldeak hankak errazago sartzen ditu lurra eta horrek emaitzean eragina izaten du». Goiherri A-k eta Gaztedik berdinketa lortu zuten, horregatik puntu erdi-horrek in gelditu ziren.

Hirugarren postua mantentzeko asmoa

Arrarase hirugarren postua mantentzeko asmoa azaldu du. «Ikusi egin behar da zelaia nolako den eta gero hasieran zozketa egiten da, eta horrek ere emaitzean zerikusia izaten du». Ezustekoak ere egon daitezkeela gehitu du, «aurrerekoan Goiherri A-k tiraldi bat galdu zuen eta ez zuten espero».

Bihar, beraz, Aresoko taldeak bigarren jardunaldia jokatu du eta datorren asteburuan, hilaren 12an izanen da finala.

Barriolak San Ferminetako finala jokatu du etzi



Gaur erabakiko da Olaizola I.aren edo I.aren aurka jokatu duen. M. SOROA

Pilota » Juan Martinez de Irujoren eskuko lesioa dela eta, zuzenean finalera pasa da leitzarra, finalerdiak jokatu gabe.

N. GARZIA

Abel Barriola zuzenean San Ferminetako lau t'erdietarako finalerako sailkatu da. Atzo finalerdiak jokatu behar zituen Martinez de Irujo pilotariaren aurka, baina honen eskuko arazoak direla medio, partida bertan behera utzea erabaki zuen.

Ondorioz, Barriola, joan den urtean bezalaxe, lau t'erdiko San Ferminetako finalan da, jada, uztailearen 7an jokatu da, ohi bezala, San Fermin Egunean, Iruñeko Labrit pilotalekuan. Iberoko pilotariak oraindik eskuan arazoak ditu eta asteartean atzo jokatu behar zuten norgehiagoka bertan behera utzteko erabakia hartu zuen.

Ja hiru aste igaro dira Barriolak Bengoetxea VI.aren aurka finala jokatu eta galdu zuela, eta pilota-

riak azaldu duenez, «hori atzean uzteko garaia da». Orduktik beste zenbait pilota partida jokatu dituen arren, lau t'erdiko San Ferminetako finala izanen da jaso zuen porrota eta gero leitzarrek jokatu duen partida garrantzitsua.

Joan den urtean Aimar Olaizola-aren aurka jokatu zuen eta goizuetarak 22-8 irabazi zion leitzarri. Oraingo, ordea, aurkaria zein izanen duen erabakitzeko dago, izan ere, gaur bertan Olaizola anaiak elkarren aurka ariko baitira, beraz, Olaizola I.a edo II.a izanen du aurkari.

Finala eta gero Iruñeko binakako txapelketan hartuko du parte Barriolak, Xala bikotekide izanen duelarik.

Uztailaren 7a

Uztailaren 7an baigoizez bai gauzez pilota partidak jokatu dituzte Labriten. San Fermin Torneoeko finala baino lehen Eugi eta Lasa III.a Retegi eta Ruizaren aurka ariko dira.

Gauean, berriz, 3 norgehiagoka jokatu dituzte, eta Bengoetxea ere tartean izanen da.

ARAMBURU

Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin. 4.000m². guztiz eraberritua.
Salgai (Tolosa).
Etxebizitza. Soldadu kalean. sartzeko moduan. (231.400€ / 38.500.000 pnta)
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean, 1. Igozailarekin sartzeko moduan eta bestea eraberritzeko eta igogailunik gabe. (193.000€ / 32.000.000 pnta negoziagarriak)
Salgai (Tolosa).
Etxebizitza. Martín Jose Iraola kalean.
Salgai (Ibarra). Etxebizitza. San Ignazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000 pnta)
Salgai (Tolosa). Izaskun auzoan. (234.400€ / 39.000.000 pnta)
Salgai (Villabona). Etxebizitza, guztiz eraberritua. Amasan.
Salgai (Legorreta). Etxebizitza eraberritzeko.
Salgai (Ibarra).
Lokala. Euskal Herria kalean.
Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Ametotzen (Tolosa) eta Idoigagan (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, lurre auzoan eta San Frantziskon.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak. San Frantzisko, Araba etorbidean eta Baxiler Zaldibian.
Alokatzeko (Ibarra).
Pabilloi industriala. Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Lasarteren burua berriro bere lekuan

LEITZA » San Joan Bezpera egunean Manuel Lasarte bertsolariaren busto berria inauguratu zuten eta horretarako bertsolariari omenaldi xumea egin zioten. Udaletxeko zenbait ordezkari bertan izan ziren eta Jon Arangoak ongi etorria egin zion. Ondoren herriko bertso eskolako kide den Miel Mari Eloseggi Luze 3 bertso abestu zizkion. Aurrerako dantzariak ere aurrekoa dantzatu zioten eta Lasartek 2 hitz egin zituen amaieran. Herriari eskerrak eman zizkion eta Leitza ez zegoela salgai esanez amaitu zuen. Bustoa Mikel Lizarraga leitzarrek egin du. M. ILLARREGI





GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	19°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Hurrengo denboraldian Amaro z kadete mailako taldean jokatu nahi duten gazte guztiak astelehena, uztailak 7, eta asteartea, uztailak 8, arratsaldeko seiretan, Usabalgo futbol zelaira azaldu zaitzekete kirol arroparekin.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpek Salamancara irteera antolatu du irailaren 14tik 19rako. Bazkideek 226 euro eta ez bazkideek 231 euro.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 673649.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



A Agurrak



Zorixonak!

Nagore eta Asier (Villabona). Ondo pasa zuen ezkontza egunean eta Bora Boran ikusiko gara! Zoriontxu izan! Lankideak.



Urte askoan!

Udane Sarasola.
Zorionak etxekoan eta bereziki Migelen partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Errekaren bidea berreskuratuz

TOLOSA © Zurmardi Handia hiriaren erdiguneko berdegune nagusienetakoa da. Ikusgarria, eta xarma bereziko, zumarra eder horien itzalpeagatik. Baina, orain, kolektorearen obrak direla eta, zuhaitz ilada bat bota egin dute. Udalak, Papelera Tolosanako egungo meandroko ubidearen ibilbidea aldatuko du, ubidea zabaldu eta inguruaren gaineko eragina gutxitu eta ertzeetako baldintza botaniko eta biologikoak hobetzeko lur-erazondak sortuz. Aspaldian, lantegiarengatik desbideratu egin zen erreka, eta orain paper fabrika ez dagoenez, bere berezko bidera eraman nahi dute berriro. Horretarako, errekatik hurbilen dagoen parkeko zuhaitz ilara bat kendu dute. Dena dela, zuhaitz gehiago landatu behar dituzte. E.E.

